

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

Nekazaritza Eremuko Kontseiluaren Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudiari hasierako onespena ematea

2016ko azaroaren 4an egindako ohiko bilkuran, hasierako onespena eman zion Gasteizko udalbatzak Nekazaritza Eremuko Kontseiluaren Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudiari.

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 183. artikuluan xedatutakoaren ildotik, jakinarazten da dosierra jendaurrean jarrita dagoela, San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea—, interesdunek oro izan dezaten aukera aztertzeko eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, 30 egun balioduneko epean.

Baldin eta erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betikotzat joko da ordura arte behin-behinekoa zen erabakia.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko azaroaren 7an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE